I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren 1773/2019 FORU AGINDUA, martxoaren 25ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 64.ter artikuluan xedatutakoaren eremuan arrain-aprobetxamenduaren xederako katalogatutako espezieak eta haien kartografiako mugapenak.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015, Legearen 45. artikuluak ezartzen du, administrazio-egintzak beti argitaratu beharko direla hainbat pertsonari zuzenduatko egintza denean. Hori dela eta, argitaratu egiten da martxoaren 25eko 1773/2019 Foru Agindua. Hau dio foru agindu horren xedapen-zatiak:

Lehenengoa.—*Espezieen identifikazioa*

Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea indarrean jarri aurretik Bizkaiko Lurralde Historikoan sartutako espezie exotiko inbaditzaile legez katalogatutako espezieak Black Bass edo Perka Amerikarra (Micropterus salmoides) eta amuarrain ortzadarra (Oncorhynchus mykiss) dira.

Bigarrena.—*Black Bass-ek (Micropterus salmoides) Bizkaian okupatutako eremuen identifikazioa eta mugapena*

Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean Bizkaiko Lurralde Historikoan lege hori indarrean jarri aurretik arrain- aprobetxamendurako sartutako espezie exotiko inbaditzaile legez katalogatutako espezieentzat jasotako neurriak artikulatzeko, foru agindu honen I. eranskinean argitaratzen dira Black Bass edo perka amerikarrari (Micropterus salmoides) dagozkion eremuak. Eremuak ur-masen izenaren arabera definituta daude, eta, gainera. ETRS89 datum geodesikoko UTM (Huso 30T) proiekzio-sistemako koordenatuetan adierazitako erreferentzia geografikoa dute.

Hirugarrena.—*Bizkaian amuarrain ortzadarrarekin (Oncorhynchus mykiss) birpopulatutako eremuen identifikazioa eta mugapena*

Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 64 ter artikuluaren 4. Puntuan Bizkaiko Lurralde Historikoan amuarrain ortzadarrarentzat (Oncorhynchus mykiss) jasotako neurriak artikulatzeko foru agindu honen II. eranskinean argitaratzen dira aipatutako legea indarrean jarri aurretik baimendu ziren espezie horrentzako askatzeei dagozkien ur-masak. Eremuak ur masen izenaren arabera definituta daude, eta gainera ETRS89 datum geodesikoko UTM (Huso30T) proiekzio-sistemako koordenatuetan adierazitako erreferentzia geografikoa dute. Ibaietako eremuetarako, berriz, birpopulatutako tarteko beheko puntuaren koordenatuak eta goiko puntuaren koordenatuak adierazten dira.

Laugarrena

Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarriko da, zintzo beteaz Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 64.ter artikuluaren bigarren apartatua, lege hori aldatzeko uztailaren 20ko 7/2018 Legean emandako idazketan.

Bilbon, 2019ko martxoaren 25ean.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
Zaintzeko foru diputatua,
ELENA UNZUETA TORRE

eek: BAO-2019a066-(I-310)